

B

BARREN

San Ferminen babesean

Gorka Mujika eta Gaizka Lazarobaster

TOKIKOM



ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK

**Eskaintza
haundiak
koltxoietan
erakusketa
aldaketagatik!!**

**Eskaintza berezia 135x190 neurriko
ohea, larru txuriaz forratutako ohea.**



LEHEN ~~800€~~ ORAIN 590 €



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Zorionak eta askatasuna

Iritsi da 2012ko uztaila eta burua lehengo lepotik. Izan ere, badira 2 urte eta erdi herri ekimen hau abian jarri zenetik eta entzun behar luketenak gorra dira edo gure aldarria ez da behar den lekuraino iristen.

Gaurko honekin eskerrak eman nahi dizkiegu, gure eskaerei babes eman dien hainbat herritarri. Alderdi askotakoak izan dira, norbere alderdiaren txokotik apur bat irtenda justiziazko eskabidearen alde agertu direnak. Hala egin dira kontzentrazioak, manifak, hitzaldiak, kantaldiak, filma emanaldiak e.a. Eskerrak, berriz ere, zuen babesagatik.

Oraingo honetan, oporren atarian gaudenean, bi motibo nagusi ditugu guztion arreta erakartzeko:

Alde batetik, Arnaldok ostiral honetan (uztailak 6) betetzen ditu urteak, eta gure zorion-opari ederra luzatu nahi diogu Logroñoko kartzelaraino. Kanean izan balitz nahiago genuen guztiok, baina entzungor egiten digute.

Beste alde batetik, datorren astelehenean (uztailak 9) egingo ditu Arnaldok mila egun, gizarte zibilizatuentzat lotsagarria den egoeran; izan ere, injustizia sufritzen duen pertsonak dauden bitartean gizartea ezin da pozik egon. Horregatik, gutariko bakoitzaren duintasunaren izenean errepikatzen dugun eskaria da Arnaldo zein harekin batera *Bateragune auzian* zigortuak libre utzi ditzatela, gizarteko bakegintzan lan egitera besteekin batera etor daitezen.

Euskal presoak askatu!

Arnaldo Askatu, Politika Askatu
Herri ekimena



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Arnaldok ostiral honetan betetzen ditu urteak, eta gure zorion opari ederra luzatu nahi diogu Logroñoko kartzelaraino”

ESKERTZA



ALFONSO ARRILLAGA GONZALEZ-DUEÑAS

2012ko uztailaren 4an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



JUANA ARRIETA ECHAVE

2012ko ekainaren 30ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Birziklatzeari zentsurarik ez, Gipuzkoa aldatzen ari gara

Aste honetan, EAJK, PSEk eta PPK Juan Karlos Alduntzin Gipuzkoako Ingurumen diputatuaren aurkako zentsura mozioa onartu dute. Honen aurrean, Euskal Herria Bildu koalizioa osatzen dugunok gure desadostasuna agertu nahi dugu, Gipuzkoan abian den aldaketa politiko eta soziala gelditzea bilatzen duelako.

EAJK, PSEk eta PPK, orain dela oso aste gutxi arte, Gipuzkoa geldirik zegoela zioten, baina hondakinekin dugun arazoa behingoz konpontzeko gai den plan integrala mahai gainean jarri denean, orduan zarataka hasi dira. Zer da, bada, ditxosozko plana? Hondakinen arazoari konponbidea da, 200 milioi euro gutxiago kostatuko da, eta Europako ebazpenetan oinarritzen da, hau da, birziklatzean, eta ez hondakinen errausketan. EAJK, PSEk eta PPK errauste plantak ez zeukala alternatibarik esan digute, baina plan berri honek erakutsi du baietz, badagoela gauzak ondo egiteko aukera, ekologikoagoa eta eramangarriagoa. Europako Parlamentuak 2020a baino lehenago birziklatu daitekeen guztia birziklatu behar dela adierazi du; ezin go dira ez erraustu ez eta isuri. Beraz, Zubietako errauskailua, gaur egun, iragana da. EAJ, PSEk eta PPK aldaketa oztopatu eta iraganera bueltatu nahi dute, baina Gipuzkoa martxan dago, eta hondakinen kudeaketan aitzindari izango gara.

Bukatzeko, egoera honek herritarren artetik erantzun bat merezi duela uste dugu. Euskal Herria Bilduk gipuzkoar guztiei dei egiten die, uztailak 7 larunbata, arratsaldeko 17:30ean Donostiako Boulevard-etik *Birziklatzeari zentsurarik ez; Gipuzkoa aldatzen ari gara* lelopean egingo den manifestazioan parte hartzea. Autobusa 16:30etan izango da, Kinkonen. Eskerrik asko.

EHBildu

Mila esker

Kimetz Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue Nahaste Borraste proba antolatzen lagundu zenuten guztioi. Herritarroi, ostiralean

herriko kaleetan jarri zenuten giroagatik, eta, nola ez, partaide guztioi, zuek barik ezingo genukeelako Nahaste Borraste egin. Mila esker guztioi.

Kimetz Elkarte

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Jose Luis
Azpillaga

Aspaldi hasi ziren ingelesezko berbak agertzen gure eguneroko jardunean, eta dagoeneko ohituta gaude horietako asko erabiltzen: footing, camping, shopping,....

Azken urteotan, horiekin batera, hasiak gara hainbat erakunde eta ekitaldiri ere ingelesezko izenak jar-

zten. Ekainaren 26ko *Berria* egunkariak erreportaje interesgarria zekarren gai horren gainean. Adibide-zerrenda bat ere bazekarren. Hona, esaterako, zenbait erakunderen izenak: Basque Culinary Center, Basque Team, Bilbao Exhibition Center, Kutxa Bank, eta abar. Ekitaldien izenak: Bilbao BBK Live, Buy Urdaibai, Shopping Bilbao... Beste batzuk ere erantsiko nituzke nik: Donosticup, Eibar Factory... Elgoibarko adibiderik ez zait bururatzen.

“Ez da erraz ulertzen

zergatik jartzen diren ingelesezko izenak”

Ulertzen dut batzuetan komenigarria izan litekeela ingelesezko izenak jartzea, nazioartean errazago identifikatzeko, eta, batez ere, bezeroak atzerrikoak badira. Gainerakoan, ez da erraz ulertzen zergatik jartzen diren ingelesezko izenak. Bat nator Juan Ignacio Perez Iglesias EHUko irakasleak diotenekin: “Nolabaiteko konplexua adierazten du horrek. Nazioartekotzeko borondatea aitzakiatzat hartuta, ematen du modernoagoak garela. Eta ez gara modernoagoak izenak ingelesez emateagatik”.

Gainera, gaizto jarrita, badut susmoa ingelesezko izenak jartzearen inguruan. Iruditzen zait batzuetan bestelako arrazoiak daudela horrela jokatzeke, esaterako: euskarazko izena jarri nahi ez izatea; edota gaztelaniazkoa soilik jarri nahi izan arren, gaizki ikusia izateko arriskurik nahi ez izatea. Horrelakoetan, ingelesez jarri eta listo! Zer diozu, Amaia? Euskaltgia ala Basque Language School?



Amaia
Larrañaga

J.Luis, neuk ere irakurri nuen Naming-a ingelesez erreportajea eta, zuk diozun moduan, gero eta gehiagotan entzun edo irakurtzen ditugu honelakoak, eta, sarri, badirudi, horixe dela jarraitu beharreko bidea, baina Perez Iglesiasek dioen bezala, nolabaiteko konplexuak jota gaudelakoan nago.

Alde batetik, oro har, euskaldunok euskararekiko dugun txepelkeria ederki islatzen du eta; bestetik, agintariak, jeneralean, hizkuntza kontuetan ere, zein axolagabe eta “moderno” (P.Iglesias hitza hartuta) jokutzen duten erakusgarri delako; eta, azkenik, salbuespenak salbu, munduaren norabide eredutzat hartzen den amerikanizazioaren adibide ezinhobea dela uste baitut.

“Geure buruaren jabe ez izateak hondamendira bidean jarri gaitu”

Jokabide hauek direla-eta, saltaka egin beharrean footing egiten dugu, azken honek mesede handiagoa egiten digulakoan; lapurretan dotore asko egiten digun finantza-erakundeari Kutxa Bank izena jarri diote, P. Iglesiasek dioen moduan “kosmopolitagoak” izatearren-edo, baina “kosmolarrosa” hutsak izanda; eta, zer esan gure amamek eta amek prestatzen dituzten baba-lapiko, berakatz-zopa, intxaur-saltsa eta enparau osasungarriak jan beharrean, Ameriketan ere hala egiten eiz dutelako, fast food-aren alde egiteaz?

Gai hau hizpide, aspaldi idatzi zuen A. Lertxundik Basque Tontoland Center izeneko herritarrak egin nahi ote gaituzten, eta, neuk ere susmo hori hartzen diot, izan ere, geure buruaren jabe ez izateak hondamendira bidean jarri gaitu, alegia, etxekoa babestu, maite, zaindu, dastatu, erabili, ikasi, lehenetsi... beharrean, kanpokoari men egiten diogu, kanpoko hori baztergarria ez izanagatik, baina, jakina, bakoitza bere tokian eta neurrian.

Beraz, J.Luis, jarrai dezagun euskaltgia erabiltzen!



I. URTEURRENA

MARIA ARAKISTAIN IRIONDO

2011ko uztailaren 4an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, uztailak 8, goizeko 12:00etan Mendaroko Garagartzako eliz parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



Irailean hasiko dituzte Gabriel Kurutzelaegi eta Pedro Muguruza kaleak batuko dituen igarobidea egiteko lanak

Zazpi hilabete iraungo dute lanek, eta aurrekontua 707.735 eurokoa izango da

Irailean hasiko dira Gabriel Kurutzelaegi kalea, Pedro Muguruza etorbidea eta Toletxegaineko geralekua lotuko dituen oinezkoentzako igarobidea egiteko lanak. Irisgarritasuna hobetu, oinezkoen mugimenduak arindu eta inguru hori Euskotrenek egin asmo duen geraleku berrira egokitzeko asmoz eraiki dute pasabidea. Aurreikusitakoaren arabera, zazpi hilabete beharko dituzte obrak amaitzeko, eta aurrekontua 707.735,41 eurokoa izango da.



Emakume kubatarren gaineko erakusketa Mendaron



Emakume kubatarrek, iraultza bat beste baten barruan izenburuko erakusketa beste astebetez egongo da ikusgai Mendaroko udaletxeko atarian. Kubako ama-haurren programa, sexu aniztasuna, emakume kubatarren botere-hartzea, emakumeen autonomia eta beste hainbat gairi buruzko panelak jarri dituzte, eta era berean, Euskadi Kuba elkarteak eta Foru Aldundiko Giza Eskubideen Sailak argitaratutako fitxak ere jarri dituzte eskura.

Mintxetako igerilekuek 10.000 erabiltzaile izan dituzte jada

Ekainaren 15ean zabaldu zituzten Mintxetako igerilekuak, eta hamabost egunean, 10.000 erabiltzaile baino gehiago izan dituzte. Eguraldi onak lagundu du horretan, zalantzarik gabe. Kirol patronatuko arduradunek jakinarazi dute, gainera, goizetan ere aurreko urteetan baino jende gehiago ibili dela. Igandetik eguenera egunero 1.000 erabiltzaile baino gehiago zenbatu dituzte, eta joan zen asteko martitzena izan zen jende gehien ibili zen eguna. Guztira, 1.500 lagun zenbatu zituzten.



Izena **Jesus Astigarraga**



Jesus Astigarraga hil da, 75 urterekin. Parkinsona duten gaixoen Debabarrenako elkartearen (Deparkel) bultzatzaileetako bat izan zen Astigarraga hasiera-hasieratik, eta era berean, Gipuzkoan sortu zen lehenengo Nagusien Kontseiluko presidentea ere izan zen, Deparkelekoaz batera. Giza arloko gaiekiko konpromiso handiko gizona izan da Astigarraga.

Irteera **Islara**

Isla eta Santoñara irteera antolatu du Elgoibarko Jubilatuen Egoitzak uztailaren 18rako. Goizean, bizi-kalitatearen gaineko konferentzia bat entzutera joango dira, eta Isla herria bisitatzeko aukera izango dute. Ondoren, hango bertako jatekoa bazkalduko dute, eta arratsaldean Santoñara joango dira. Irteerak 12 euro baliotu ditu.

Ekitaldia **Tuning erakustaldia**

Tuneatutako autoen erakusketa antolatu du Altzolako Zubibai elkarteak uztailaren 7rako, Pechotes Tuning Team, Maket Desing Tuning eta Elgoibarko Udalarren Kultura Sailaren laguntzarekin. Bigarren urtea da halako erakusketa bat antolatzen dutela. Altzolako Karmen plazan tuneatutako 30 auto inguru izango dira ikusgai, eta baita zenbait maketa ere. 10:00etan zabalduko dute erakusketa, eta 23:00ak arte han egongo da autoak ikusteko aukera. Eguna, argi joko batekin amaituko dutela iragarri dute antolatzaileek. Egunean bertan jolasak ere egingo dituzte, eta Donna edergintzak emandako otar bat ere zozketatuko dute.

Ekitaldia **Ermuaranbide kalekoen bazkaria**

Ermuaranbide kalekoek (ONU) auzotarren bazkaria egingo dute irailaren 22an, Sigma jatetxean. Uztailaren 27ra arteko epea jarri dute izena emateko eta ordainketak egiteko. Interesatuak 38 euro sartu behar dituzte Javier Garcariaren izenean Euskadiko Kutxan zabalduko kontu korrante honetan: 3035 0007 24 0071124731. Aipatzekoa da, bazkariak gain, auzoari buruzko dokumentala emanango dutela egun horretan Herriko Antzokian, 12:30ean, eta ondoren, eta bazkaritara joan aurretik (13:00), auzoko nagusiei omenaldia egingo dietela Herriko Antzokian bertan. 14:00etan izango da bazkaria, eta ondoren, bazkalostean, dantzaldia izango dute Gelatxorekin.

Zapatuko zozketako zenbaki saridunak jakinarazi ditu Taupadak

Hileko azken zapatuko ferian zozketa berezia egin zuen Taupada antzerki taldeak, eta 16.171 izan da zenbaki sariduna. Irabazleak hamabost eguneko epea dauka saria jasotzeko. Harrematarako bi telefono zenbaki jarri dituzte: 653 013 813 eta 656 416 677. Erreserbako zenbakiak honako hauek dira: 06042 eta 04626.

Herrira mugimenduak herri bazkaria antolatu du abuztuaren 23rako

Preso eta iheslarien aldeko Herrira mugimenduak herri bazkaria antolatu du abuztuaren 23rako, San Bartolome bezperarako. 13:00etan, txupinazoaren ostean, trikiti poteoa egingo dute, eta ondoren, 15:00ak aldera, Malako parkean batuko dira guztiak, elkarrekin bazkaltzeko. Antolatzaileek jakinarazi dute abeslariak izango direla bazkalordua girtzeko. Herri bazkarirako txartelak salgai daude dagoeneko Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan. Uztailaren 15era arteko epea jarri dute txartelak erosteko.

Lau hileko zigorra ezarri diote elgoibartar bati haur pornografia delituagatik

Haur pornografia delitu bat leporatuta, lau hilabeteko kartzela zigorra ezarri diote elgoibartar bati, EFE berri agentziak jakinarazi duenez. Iturri horren arabera, 120 artxi bo pornografiko inguru antzeman dizkiote disko gogorrean gordeta, eta beste lau bideo, disko konpaktu batean. Material hori guztia kontsumo propiorako jaitsi eta gorde zuela azaldu zuen auzipetuak epailearen aurrean, baina artean ez dute hori hala den egiaztatzerik lortu. Norbere erabilpenerako haur pornografia edukitzea eta adingabekoak galbideratzea leporatu diote.

Etxabe mendiko Santa Isabel jaiak ospatuko dituzte domekan Mendaron

Bertsolariak, dantzariak, herri kirolak eta umeentzako zezentxoak izango dira

Astelehenean izan zen Santa Isabel eguna, baina Mendaron domekan ospatuko dute, Etxabe mendian. lazkoaren bidetik, egitarau oparoa antolatu dute Mendaroko Udalak eta Etxabeko jai batzordeak, baina tartean bada berrikuntza bat: Etxabe-Xoxote-Etxabe mendi esprinta. 2,2 kilometroko proba da; motza, baina onenei ere hauspoa berotzeko modukoa (www.lasterketak.com helbidean duzue perfila ikusgai).

Ohiko legez, meza nagusiarekin hasiko dute eguna, 11:00etan. Badira pare bat urte Etxabeko auzotarrek Santa Isabelgo ermita zaharra berri zutela, eta hantxe emango dute elizkizuna. Juan Agustin Arriola *Artaño-la* bibolin jotzaileak eta haren alaba Nereak



eta Maddik lagunduko dute meza, bibolina-rekin. Meza ostean, eta mendiko esprinteko sari banaketa egin ostean, bertsolarien eta dantzarien txanda izango da. Berritxuko Joseba Goienola eta Mendaro bertako Aitzol Urain *Bidaburuk* jardungo dute kantuan, eta Elgoibarko Haritz dantzari taldeko eta Berritxuko dantzari taldeko kideek egingo dute dantzan.

Lagun arteko bazkaria eta dantzaldia

Herri kirolak ere ez da faltako Etxaben.

Txinga eroaten, lokotx batzen, sokatiran... jardungo dute herriko gazteek, eta Epelde eta Unai Andonegik girotuko dute bazkarira arteko tartea. 14:30ean jarri dute bazkaritarako ordua. laz, iragarpen onenak ere gainditu ziren, eta 200 txartel inguru saldu zituzten. Baina iritsi ezinda ibili ziren azkenean antolatzaileak, eta hori dela-eta, aurtengoa lagun arteko bazkaria izango dela jakinarazi dute. Ondoren, erromeria izango da, Epelde, Unai Andonegi eta Enekoitz Zubiaurre *Beitxi-rekin*, eta 17:30ean zezentxoak eta poniak izango dira, haurrentzako.

2,2 kilometro eta %45era arteko pendizak

Lasterketa gogorra antolatu dute domekarako. Ibilbidea bera motza da, baina horrek ez dio zailtasunik kentzen, une bazuetan %45eko pendizak ere gainditu beharko dituztelako lasterkariek. 12:00etan abiatuko dira Etxabetik, eta bukaeran lau sari banatuko dituzte antolatzaileek. Ehun euro jasoko ditu irabazleak, 50 bigarrenak, eta garaikurra hirugarrenak. Lehenengo emakumezkoak, berriz, garaikurra eta 50 euro eskuratuko ditu. Interesatuek 670 308 313 telefono zenbakira deituta eman dezakezue izena, edota egunean bertan, lasterketa abiatu aurretik. Izenematea doan izango da.

Ikastola gaineko, Mendarozabalgo eta Santa Kurutzeko parkeak berrituko dituzte

Herritarren eskaerei erantzunez, Mendaro Ikastolaren gaineko aldeko jolas parkea oso-osoan berritu eta Mendarozabalgoa handituko dituela jakinarazi du Udalak. Era berean, Santa Kurutzeko parkean ere hainbat konponketa eta berritze lan egingo ditu. Guztira, 40.000 euro bideratuko ditu Mendaroko Udalak horretara, eta ondo bidean, uztailaren 25erako, Santana jaiak bueltarako, bukatuta egongo dira lanak.



Mikel Goñi eta Juantxo Koka, santanetan

Uztailaren 29rako pilota jaialdia antolatu dute, Mendaroko Santana jaien barruan. Mikel Goñik Altunarekin osatuko du bikotea, eta Koka eta Garmendiaren kontra jokatu dute biek. Partida nagusiaren aurretik 10 Bai taldeko pilotarien norgehiagoka ikusteko aukera izango da: Kepa Arrizabalagak eta Markel Portuk, Haritz Arribillaga eta Iñaki Lazarobaster izango dituzte aurrez aurre. Sarrerak salgai daude dagoeneko Mendaroko udaletxean eta Lagun Betikoak egoitza. Partida eserita ikusi nahi dutenek sei euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek hiru euro. 17:30ean hasiko da pilota jaialdia Goñati frontoian.

Uztailaren 18ra arteko epea dago koadrilen eguneko bazkarirako izena emateko

Uztailaren 28an izango da koadrilen eguna, eta Udalak jakinarazi du uztailaren 18ra arteko epea dagoela bazkaritarako izena emateko. Interesatuak Txirristakan, Uztargin edota Arratsen eman dezakete izena. Marmitako lehiaketa, koadrilen arteko jolasak eta playback lehiaketa izango dira, besteak beste.

Piropo lehiaketan parte hartzeko epea, zabalik

Santana jaien harira, piropo lehiaketa antolatu du aurten Mendaroko Udalak. Euskarazko piropoak izan beharko dira, orijinalak, eta antolatzaileek aurreratu dute ez dutela piropo sexistarik onartuko. Mendaroko tabernetan eta Gaztelekuan jarrita daude dagoeneko piropoak uzteko kutxak. Izan ere, uztailaren 15ean amaituko da lehiaketan parte hartzeko epea. Saria zein den ez dute jakinarazi.

Hasi dituzte ikastolako patioa estaltzeko obrak, eta okerrik ezean, abuztuaren 31rako amaituko dituzte

Hasi dituzte Mendaro Ikastolako patioa estaltzeko obrak. Lehiaketara aurkeztu zuen Udalak patioa estaltzeko proiektua eta Kataluniako Blur Arquitectura enpresak irabazi zuen (guztira, 58 lan aurkeztu ziren lehiaketara). Enpresa irabazleak 660.000 euroko proiektua aurkeztu zuen (BEZA barne), baina obra esleitu zitzaion enpresak, Altuna y Uriak, 529.000 euroko aurrekontua aurkeztu zuen, eta diru kantitate hori da, hain justu ere, Mendaroko Udalak eta enpresa horrek martxoaren 14an sinatu zuten akordioan jasotakoa. Blur enpresako Octavio Perez Monfort arkitektoa ari da obra zuzentzen, eta abuztuaren 31a arteko epea dute lanak bukatzeko. Izan ere, ikasturtea hasten deneko, dena amaituta egoteko baldintza jarri zien Udalak.

Oinarriak jartzea da eginbeharrekoen artean egitekorik zailena. Izan ere, Mendaroko lurra karstikoa da, eta horrek asko zailtzen ditu lanak. Disolba daitezkeen arroka sedimentarioz, bereziki kareharriz, osatutako lurra dira. Hau da, harriak buztin lehorraren itxura du; zartatu eta zuloz beteriko lurra da, azken batean.



ARBASOEN DEIA, DOLMENEN IBILBIDETIK

Arbasoen Deia egitasmoa antolatatu du Debegesak, Debabarreneko historiaren eta historiaurrearen sekretuak ezagutzera emateko, eta horretarako, hiru ibilbide prestatu ditu: Dolmenen ibilbidea, Burdinolen ibilbidea eta paleolitoko ibilbidea. Dolmenen ibilbidea izan da lehenengoa. Ekainaren 16an egin zuten estreinako aldiz, eta hantxe izan zen **BARREN**. Gaur, trikuharrien ibilbidean barneratzeko aukera izango duzue.

Ainhoa Andonegi



Trikuharrien ibilbideko monumentu megalitikoekoa mapa.

Ekainaren 16a. Eguraldiak okerrera egingo duela esan dute eguraldi iragarleek, baina momentuz eguzkitsu dago eguna. 10:00etan daukagu zita Karakateko aparkalekuan, eta puntual iritsi gara. Eguna garbi-garbi dago, eta inguruko mendi guztiak ditugu begien aurrean: Alde batean, itsasoa ikus dezakegu, eta bestean, tontor ezagunak: Kalamua, Anboto, Gorbeia eta Oiz, besteak beste.

Migel Angel Barandiaran paleontologo eta etnografoak Trikuharrien ibilbidea izena eman zion ibilbide honi. Irimo mendian (Urretxu) hasi eta Elosu eta Agerreburu (Bergara) pasatuz, Maltzagaraino eta Soraluze-raino iristen da estazio megalitiko hori. Lur horietan hamasei monumento megalitiko ikus daitezke, eta hilobi monumento horietako batzuk, Karakate eta Irukurutzeta bitartean daude. Tumuluak eta trikuharriak aurkituko ditugu bidean. Hilobi bat edo gehiago estaltzen dituen lur edo harri-metaketa handia da tumulua, eta historiaurrean sarri

erabiltzen ziren horrelakoak. Trikuharria, aldiz, lurrean zutik finkatuta dauden hainbat harriz eta hauek estaltzen dituzten zenbait harlauzaz osatutako monumentu megalitiko da, eta gorpuak ehorzteko eratan zen.

Hiru orduko ibilbidea aurreikusi dute, erraza, lasaia eta edonork egiteko modukoa.

Poliki-poliki heldu da jendea. Aitonamona batzuk bilobekin agertu dira Eibartik, Soraluzetik pare bat lagun etorri dira, Arrasate ingurutik hirukote bat iritsi da, eta Elgoibartik beste mutil bat. Debanatura elkartetik Iraia Agirrezabal etorri da, eta berak emango ditu azalpenak. Denok prest gaude, eta hastera goaz.

K.a. 5000. eta 3000. urteen artean inguru honetan bizi ziren artzainek sorturikoak dira Karakate mendilerroko tumulu eta trikuharriak. Dinosauroen garaian (duela 55 milioi urte inguru) ibilbide hau guztia itsaspean zegoen, eta itsaspeko sumendietako magma hoztean sortu ziren ingurune honetako haitz guztiak. Denak harri bolkanikoak dira, hortaz. Ondoren, Pirinioekin batera, mendi bilakatu ziren.

Karakatetik kilometro eta erdira egin dugu lehenengo geldidunea, Gizaburuako tumuluaren aurrean. Hamar metroko diametroa eta 0,30 metroko altuera dauka tumuluak. Oso nahasita dago guztia, eta ez da erraz ikusten, baina bidean jarritako harrizko seinaleak adierazten du leku zehatza.



Gizaburuako tumulua.





Iruyako tumuluaren aurrean, paraje ederraz gozatzten.

Aurrera jarraitu eta Iruyako trikuharria izan da bigarren geldidunea. Ezkutuan dago tumulua, baina gidak esandakoaren arabera, aurrekoaren antzekoa da tamainan. Leku honetatik gozatu ederra hartu dute gure begiek, paraje ikusgarriak izan ditugu begien aurrean.

Bidean 600 metro aurrera eginda, Atxolingo trikuharria dago, Atxolin gainaren erpinean, hain zuzen ere. Guk ekialdeko bidea hartu dugu, ordea, eta Atxolin Txikiko tumulua begiz jo dugu ehun metrora. Tumulua hamaika metroko diametroa dauka, eta 0,95 metroko altuera. Erdiko kraterra 4,50 metrokoa da diametroan eta 0,60 metrokoa sakoneran. Kondaira baten arabera, ama birjinak egindako zuloa da hori.

Hurrengo geltokia, Pagobedeinkatua. Pagoen itzalpean hartu dugu atseden txiki bat. Iraiak azaldutakoaren arabera, garai batean erromeria egiten zen Pagobedeinkatun, maiatzaren 3an, eta Elosuko zaldun batek hiru buelta ematen zizkion pago bedeinkatuari urteko uzta ona izan zedin. Erromeria egiten zen leku berean gurutze bat dago.

Irukurutzetara iristear, Arribiribiletako trikuharriarekin egin dugu topo. Hauxe da ondoen ikusten den megalitoa. Trikuharriak bederatzimetroko diametroko eta 1,10 metroko luzerako tumulua du. Sakonune bat dauka, 2,50 metro diametrokoa eta 0,30 metroko sakonerakoa. Gune harritsu baten gainean dago kokatuta tumulu hori, eta bertan aurkitutako ikatzak eta teilek erakusten dute mugarri bezala erabili izan dela megalito hori.



Arribiribiletako trikuharria.

Irukurutzetaraino iritsi eta bertan amaitu dugu ibilbidea erdia. Laino beltzak ageri dira zeruan, eta kostaldetik ekaitza dator. Karakaterainoko itzuleran lainoa sartu da eta euri apur bat ere bota du. Karakate gainean egin dugu mokadutxoa, eta indarberrituta amaitu dugu Debabarreneko sustraietara eginiko ibilaldia. Arbasoen deia entzun dugu Dolmenen ibilbidean.

ONDORENGO IBILALDIAK:

- Dolmenen ibilbidea: uztailak 8, irailak 16 eta 30, urriak 12 eta 21, azaroak 11 eta 25.
- Burdinolen ibilbidea: Uztailak 15, irailak 9 eta 23, urriak 14 eta 28, azaroak 4 eta abenduak 6.
- Paleolitoko ibilbidea: Irailak 1 eta abenduak 8.



Pagobedeinkatuko tumulua.

ZEZENEN BIDERA

San Fermin eguna da bihar, eta horren aitzakian, Iruñeko entzierroan korrika ibili ohi diren bi lagunekin bildu da BARRÉN: Gaizka Lazaroaster mendaroarrarekin eta Gorja Mujika elgoibartarrarekin. Barru-barruraino sartuta dute harrera biek ala biek. 16 urte zituenetik urtero irten da entzierroan Lazaroaster, eta Mujikak ere gutxitan egin du huts Iruñeko entzierroan. Iaz ez zen irten, baina aurten tentatuta dabil berriro ere. Nork bere lekua du Estafeta kalean.

Ainara Argoitia

GAIZKA LAZAROASTER



Nondik datorkizu zezenetarako afizioa?

Amarengandik. Gure ama Lasturkoa da, eta afizio handia dauka. Horegatik, beharbada, umetan ez genuen inoiz huts egiten Mendaroko sokamuturrean. Eta, jakina, hurrengo pausoa, gaztetxotan, Debako entzierroan irtetea izaten zen. Debako entzierroa gozamen bat da gainera, fisikoki ondo baldin bazaude oso erraza delako zezenaren aurrean jartzea, ez dagoelako jenderik traban. Hori bai, oso-oso azkarra da. 14 bat urterekin irten nintzen lehenengoz. Eta badakizu zelan diren kontuak: beti gehiago nahi. Koadrilan pare bat urte zaharrago ziren lagunak izan ditut beti, eta haietako batek gidabaimena atera zuenean, han joan ginen Iruñeara, Seat Panda batean. 16 urte nituen. Gaupasa egin genuen, eta goizean entzierroan irten nintzen.

Zer oroitzen duzu ordukoaz?

Ikusi ere ez nituen egin zezenak. Ibilbidean sartu, hasi korrika, eta kon-

turatu orduko pasatu ziren denak. Leku txarrean egin nuen korrika, gainera: Santo Domingo aldapan gora, udaletxera orduko. Kale estua da, eta aldaparik handiena hantxe dago. Eta jakina, zezenak oso azkar pasatzen dira handik. Orduetik urtero joan naiz. Gogoan daukat ikasketak amaitu nituen, Opelean hasi nintzela lanean, eta lanera apur bat beranduago sartzeko baimena eskatuta, han joaten nintzela Iruñeara. Urteetan ibili naiz horrela.

Pentsatzen zenuen bezalakoa egin zitzaizun?

Ez. Oso gogorra iruditu zitzaidan, baina, aldi berean, sekulakoa izan zen, eta izaten da orain ere. Zezenaren aurrera irteteen garren denok izaten dugu beldurra, eta etxafuegoa botatzen duten momentuan pultsazioak topera izaten ditugu. Baina beldur horrek aktibatu egiten du gorputza, eta beldurra gainditzeak ematen duen satisfakzioa hain da handia...

Zer egiten zaizu zailena?

Zezenaren aurrean jartzea. Nahita ere, oso zaila da. Ikasi egin behar da. Umetatik, entzierro guztiak ikusi ditut telebistaz, eta beti errepertzen diet korrika ondo egiten dutenei. Ezer ez dakizunean, normalena da espaloian jartzea zezenaren zain, eta bistaritzen direnean saiatzea haien ondoan jartzen, baina oker handia da hori. Izan ere, zezenaren aurrean datozenek abaniko antzeko bat sortzen dute, eta paretaren kontra botatzen zaituzte. Kale erdi-erdian mantendu behar zara, zezenaren ondoan jarri nahi baduzu behinik behin. Hala ere, oso zaila da Iruñeko entzierroan korrika egitea. Jende traba handia izaten da, eta tartean atzeritar asko egoten dira, bi metroko mutilak-eta. Zezena nondik agertuko den ere ez dute jakitzen askok, gainera, eta etxafuegoa botatzen dutenean hasten dira denak astoa moduan korrika, eta zezenak berak baino arrisku handiagoa sortzen dute askotan.

Zein zatitan egiten duzu korrika?

Estafeta erdi aldetik Telefonicaraino. Sekulako borroka izaten da hor. Estafetan lehenengo zatia behetik gora da, eta zezenak irabazteko denak dauzka hor. Zati horretan oso jende gutxi joaten da zezenaren ondoan denbora askoan, baina erditik aurrera, apur bat goitik behera hasten da, eta zezenak aurreko hankak proportzioan motzagoak dituzenez, moteltzen hasten da. Alde horretatik, errazagoa da zezenaren ondoan jartzea, baina gauza jakina da hori, eta ondorioz, sekulako jende-

“Hankek ematen ez didatela sentitzen dudanean lagako diot irteteari”

tza batzen da hor. Horrek asko zailtzen du korrika egitea, eta ezinezkoa da ibilbidetik kolperik hartu gabe irtetea, sekulako bultzakadak izaten direlako zezenaren ondoan jartzeko.

Zenbat entzierrotan irteten zara normalean?

Bi-hirutan. Saiatzen naiz asteburuetako entzierroak saihesten. Goizean goiz irteten naiz etxetik, Debako lagunekin batzen naiz han, eta santua-rengana!. Entzierroa hasi baino bost minutu aurretik hasten dira kantua, eta lehenengoa entzundakoan lekua hartzera joaten gara.

Beldurra denok izaten duzuela aitortu duzu. Beraz beldurrik ez izatea ez da ezinbestekoa, baina zer behar da derrigor zezen aurrera irteteko?

Zezena ikusi artekoa da batez ere beldurra, ez dakizulako nondik azalduko diren ere. Estafetan argazkilariari begiratzen diet beti. Argazkilariak

biratzen direnean, badatozen seinale! Ganaduaren hanka hotsa da beste erreferentzia bat. Bi gauza behar dira: hanka arinak eta gorputz sendoa. Ni bizikletan ibiltzen naiz, eta forman nago, baina batzuetan gertatu izan zait bizikletan lar pisu galtzea, eta hori entzierroa korritzeko ez da ona, txotxongilo baten gisa ibiltzeko arriskua daukazulako.

Sustoren bat izan duzu noizbait?

Handiena joan zen urtean. Sudurra pitzatu nuen iaz, baina horrek ez dit atzera eginarazi. Han irteten garenek oso kontziente gara dauka-gun arriskuaz. Egia da urteekin eta bi seme-alaba izanda, gehiago pentsatzen duzula, baina... Argi dago, hala ere, 40 urtera arrimatzen ari garela eta han irteteko, sasoiari egon behar dela bat. Hankek ematen ez didatela sentitzen dudana egunean lagako diot entzierroa korritzeari.

GORKA MUJIKA



Noiz irten zinen lehenengoz entzierroan? Zer oroitzapen duzu?

18-20 urterekin. Egia aitortu behar badizut, ez nuen ezer ikusi. Santo Domingoko zatian egin nuen korrika, eta hesiaren kontra bukatu nuen, ezer ikusi gabe. Azkeneko urteotan Estafetan ibili naiz.

Nola antolatzen duzu eguna?

Orduerdi lehenago elkartzten gara beti santua dagoen lekutik gertu, eta zezenak ikustera joaten gara. Lehenengo kantua abestu arte han egoten gara, eta gero, bakoitza bere lekura abiatzen da, arrapaladan. Estafetan bakoitzak nork bere txokoa du. Ni adibidez eskuineko aldean jartzen naiz beti. Han ez dago lagunik eta ezer. Burua hotz eta bihotza azeleratuta izaten ditugu. Ez dut sekula pulstometrorik eraman, baina jarriko banu, seguru 180 pulstaziotara iritsiko litzatekeela.

Zer erreferentzia baliatzen duzu zuk zezenak noiz datozen jakiteko?

Azkeneko urteotan, Estafetako goiko alde horretan, taberna baten parean jarri izan naiz zezenen zain, eta tabernako leihotik telebistaz ikusten ditut iristen. Telebistaz ikusten dut nola datorren zezen-taldea. Lehen, Estafetako kurban sartzen ikusten nituen.

Zeren arabera aukeratzen duzu noiz joan?

Ahal izan dudanean joan naiz, baina sekula ez naiz joan asteburuan eta ezta gaupasa edo parranda eginda ere. Joan izan naiz bertan egunean, espreski entzierroan korrika egitera, eta irten izan naiz Iruñean bertan lo eginda, baina beti ondo deskantzatuta. Iruñeako entzierroa Champions-etako finalaren parekoa da, eta forman iritsi behar da hara!

Zer da ezinbestekoa Iruñeako entzierroan irteteko?

Fisikoki sasoiari egotea garrantzitsua da oso, baina nik esango nuke egingo duzunaz konbentzitura egotea hori baino garrantzitsuagoa dela. Bestetik, esperientziak ere asko esan nahi du. Lehenengo aldiari, fisikoki oso ondo egonda ere, hormaren kontra bukatuko duzu seguru-seguru. Oso korrikaldi gogorra da entzierrokoa, bultzakada asko izaten dira, eta momentuan konturatu ez arren, etxera sarri bueltatu izan gara mailatuta. Gorpuzkerak ere zeresan handia dauka.

Sustorik izan duzu noizbait?

Ez, susto handirik ez. Estuasunak bai, baina besterik ez. Hori bai, ikusi izan dut harrapaldi larriren bat edo beste, eta egia esan, inpresioa egiten dute. Hala ere, erderaz esaten den bezala, "me pone".

Urtetan irten zara. Aurten ere bai?

Ez daukat garbi. Badaramatzat bi urte erretiratu nahian. Bueno, "nahian" ez da hitza, beharbada, baina, bai, iaz ez nintzen joan, eta aurten joan, joango naiz, baina gero ez dakit entzierroan irtengo naizen. Orain bi alaba ere baditut, eta, nahigabe ere, gehiago pentsatzen ditut gauzak. Eta, jakina, hara ezin zara zalantzak dituzula joan. Han irteteko, oso konbentzitura egon behar zara, dezima batean erreakzionatzeko gai izan behar duzulako. Egia esan, denetarik ikusten duzu han, baina... Gogoan daukat behin atzeritar bat gerturatu zitzaidala zezenak zein aldetatik zetozen galdezka. Ez nion erantzun ere egin. Hara doanak garbi izan behar du zertara doan. Batetik, asko duelako jokoan, eta bestetik, halako jarrekin ingurukoak jartzen dituelako arriskuan.



“Entzierrora doanak garbi izan behar du zertara doan”

Erretratu zaharra



1972

Aste honetako erretratu zaharra Ainhoa Castrillejok ekarri du BARRENERA. 1972an ateratako erretratua da, eta bolatoki zahar-
rean aterata dago. Dotore-dotore ageri dira emakumeak erretratuan, eta seguruenik ospakizun garrantzitsuren bat izango zu-
ten egun horretan. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak:

Goian: Ezezaguna, Paskuala (†), Josefa 'Bizkai', Isabel Alegria, ezezaguna, Cristina David, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, 'Ondarru', Blankita Beristain, Rosario Arrieta, Juanita Gabilondo (†), Loli Astigarraga. **Erdian:** Arriola, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Rosario Beloki, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna, Arrieta. **Behean:** Mari Karmen Arriola (†), ezezaguna, Mari Luz Uriarte, ezezaguna, Maritxu Sestao, Lide Altuna, ezezaguna, ezezaguna, ezezaguna.

I URTEURRENA



LUCIA HERRERO LOBO

Beti izango zaitugu gure bihotzean



2011ko uztailaren 7an hil zen, 35 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, uztailaren 7an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



Jendeak ez ditu trafiko seinaleak errespetatzen:

“San Pedro egunean Idotorbera igo ginen, eta begira zer aurkitu genuen. Aparkatzea debekatzen duen bi seinale egon arren, jendeak hantxe utzi zuen autoa, eta metro gutxira, aparkalekua hutsik zegoen. Horrelako jarrerak ulertezinak dira”.



Osasun Zentroaren aurreko errotondan aparkatzen dute askok: “Udalak egokitu ditu zamaletarako hainbat aparkaleku Bernardo Ezenarro kalean, baina hala eta guztiz ere, jende askok Osasun Zentroaren aurreko errotondan uzten dute autoa. Traba handia egiten dute auto horiek, eta arrisku oneak ere sortzen dira aldi batzuetan. Eskertuko genuke arauak errespetatzea”.



Mila esker aire libreko zinea antolatzeagatik: “Krisi garaian egon arren, aire libreko zinemari eustea oso ondo iruditzen zaigu. Gustura joaten gara plazara pelikulak ikustera, eta herriko kultur eskaintza aberasten laguntzen du. Mila esker!”.



Zuon kezak, galderak edo txalokak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com / 943-741 626

BADATOZ SANBARTOLOMEAK!

Publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



Mikel Olaizolak hirugarren egin du Plazatik Gazttxera bertso txapelketan

Xabat Galletebeitia eta Nerea Ibarzabalek irabazi dute

Plazatik Gazttxera bertso txapelketako finala jokatu zen joan den zapatuan, Eibarko gazttxeran, eta Mikel Olaizagak hirugarren egin zuen. Eneko Beretxinaga soraluzearrekin osatu du bikotea Olaizolak, eta ikusleen botoei esker, buruz burukoa jokatu zuten Nerea Ibarzabal eta Xabat Galletebeitiaren kontra. Azkenean, epaileek hala erabakita, Xabat Galletebeitiak eta Nerea Ibarzabalek jantzi dituzte aurtengo Plazatik Gazttxera lehiaketako txapelak.



San Fermin Txiki eguna, astelehenean

Datorren astelehenerako antolatu du Atxutxiamaiak San Fermin Txiki eguna. 10:30ean irakurriko dute pregoia udaletxe azpian, eta ondoren, zezenen aurrean egingo dute korrika, San Bartolome eta Errosario kaleetan. Gero, eskulanak egingo dituzte, Kalegoen plazan.

Dark Code taldearen kontzertua uztailaren 13an

Dark Code talde bergararrak kontzertua eskainiko du datorren barixakuan, Sinuosek antolatuta. *Raise of Death* izeneko diskoa kale-ratu zuten urte hasieran, eta hori aurkeztera etorriko dira. Musika gogorra egiten dute, eta metala eta rocka uztartzen dituzte. 23:00etan hasiko da kontzertua, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera hiru euro kobratuko dute.



Umore Eguna ospatu zuten zapatuan Altzolan



Zubibai elkarteak antolatuta, Umore Eguna ospatu zuten joan zen zapatuan Altzolan, eta ume zein nagusiek hartu zuten parte. Risoterapia tailerra egin zuten lehenik, eta eguerdian 30 bat lagun batu ziren bazkaritarako. Arratsaldean Peli umoregileak Munduaren Txistoriari buruzko bazarriketa eskaini zuen. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, umore handiko jaialdia izan zen.

San Pedro jaiak ospatu dituzte Idotorben




Ekainaren 29an izan zen San Pedro eguna, eta santuaren omenez festak ospatu zituzten Idotorben. Ekintzaz beteriko asteburua izan da. Aspaldiko usadioari eutsiz, prozesioa egin zuten San Pedro Egunean. Meza nagusia entzutera sartu ziren ondoren agintariak eta auzotarrak, eta haren ostean hamaiketakoa egin zuten. Pilota partidak, dantzak, musika eta herri kirolak izan ziren, besteak beste, asteburuan. Horrez gain, Elgoibarko dendetan gastatzeko erosketa txekeak zozketatu zituzten antolatzaileek, Txankakuarekin elkarlanean. Hauek dira zenbaki irabazleak:

1. saria: 6088 (750 euro). (Ordezkoa: 1078)
2. saria: 381 (250 euro). (Ordezkoa: 999)

Iñigo Larizek errekorra jarri du Nahaste Borrasten, bere marka onduz

Nesketan, Ainhoa Lendinez izan da bizkorrena

Iñigo Larizek bi segundotan ondu du bere marka, eta errekor berria ezarri du Nahaste Borrasten, 18:01 denborarekin. Emakumezkoetan, bestalde, Ainhoa Lendinez izan da irabazlea 19:31 denborarekin, eta honek ere iazko denbora hobetu du. Aurten 54 lagunek hartu dute parte. Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net



Sailkapena


1. Iñigo Lariz	18:01
2. Jorge Gonzalez	19:28
3. Jose Antonio Ruiz	19:52
4. Loren Galeano	19:52
5. Iñigo Ortuoste (Bet. A)	19:55
6. Ivan Gonzalez	20:08
7. Jon Larrañaga	20:21
8. Iñigo Salegi	20:41
9. David Conde	20:42
10. Haritz Ayala	20:53
11. Iñigo Iturbe	20:56
12. Ion Irazabal	21:11
13. Aitor Beneitez	21:17
14. Santi Carrascosa	21:21
15. Alberto Seijas	21:23
16. Ainhoa Lendinez (1. neska)	21:27
17. Iñigo Aranbarri	21:33
18. Iñaki Ulazia	21:58
19. Alberto Zelaia	22:01
20. Luis Anakabe (Bet. B)	22:03
21. Aitor Romera	22:07
22. Julen Ibarluzea	22:13
23. Sergio Galindo	22:24
24. Goiatz Leibar	22:28
25. Asier Jauregi	22:30
26. Jose Ramon Ortuoste	22:40
27. Javi Gurrutxaga	22:58
28. Aitzol Gonzalez	23:11
29. Aitor Gonzalez	23:14
30. Ignacio Perez	23:17
31. Juan Jose Etxeberria	23:35
32. Tomas Carrascosa	23:43
33. Dionisio Gorria	23:49
34. Nerea Lendinez	23:20
35. Juan Jose Martinez	24:00
36. Angel Quintana	24:26
37. Asier Lizarralde	24:27
38. Jose Luis Diez	24:28
39. Eneko Etxaniz	24:39
40. Jabi Guallar	25:08
41. Josu Zubiaurre	25:10
42. Antonio Rodriguez	25:12
43. Fabian Castro	25:25
44. Ignacio Rojo (gazteena)	25:25
45. Julen Etxeberria	25:40
46. Juan Luis Gines	25:59
47. Juan Jose Gurrutxaga	26:36
48. Mikel Arrieta	27:17
49. Patxi Loiola	27:18
50. Aitor Arruabarrena	27:18
51. Mikel Elustondo	27:18
52. Gorka Otero	27:18
53. Asier Larrea	27:18
54. Antonio Fernandez (edadetuena)	28:35

Maite Maiorak hirugarren egin du Camille Extreme proban

275 lagunek hartu dute parte guztira

Camille Extreme lasterketa jokatu zuten domekan Izaban, Nafarroako Erronkari haranean, eta Maite Maiora mendarorak podiumeko hirugarren koskara igotzea lortu zuen, emakumezkoetan. Proba bikaina egin zuen Maite Maiorak eta hiru ordu, 49 minutu eta 41 segundoko denborari esker, sailkapen nagusiko 67. postuan sailkatu zen mendarorara. Guztira 275 lagunek amaitu zuten 36,1 kilometroko proba. Gizonezkoetan Hassan Ait Chaouk irabazi zuen (2:59:08), eta emakumezkoetan Aitziber Ibarbiak (3:46:13).

Iñaki Etxabe eta Mikel Arosa elgoibartarrek ere hartu zuten parte Camille Extreme proban. Etxabe 140. postuan sailkatu zen (4:20:37) eta Arosa 231. postuan (4:56:10).



Abel Hernandezek irabazi du 40-15 tenis txapelketa



Abel Hernandez, Jabi Guallar eta Lur Ibargutxi.

Amaitu dira 40-15 elkarteak antolatutako tenis eta padel txapelketak. Astelehenean jokatu zuten Abel Hernandezek eta Lur Ibargutxi tenis finala Mintxetako kantxan, eta elgoibartarrek irabazi zuen 6-3, 2-6 eta 8-6 emaitzarekin. infantil mailako finalean, bestalde, Koldo Lopez eibartarrak 7-5 eta 6-4 irabazi zion Oier Martinez ermurrari, eta alebinetan Ion Gandiaga debarra eta Sarai Araujo ermuarra izan ziren irabazleak.

Padel txapelketari dagokionez, 2010ean lortu zuten garaipena errepikatu dute Juan Luis Etxanizek eta Patxi Ballejosek. Bergarako bikoteak Alejo Azkue eta Igor Zubizarreta azkoitiarrak hartu zituzten mendean, 6-2 eta 6-4 emaitzarekin.

Euskal Herriko Itzulia Elgoibartik abiatuko da 2013an

2013ko Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren hasiko da, apirilaren 1ean. Elgoibar-Elgoibar izango da lehenengo etapa, eta bigarren egunean, Elgoibartik abiatuko dira txirrindulariak, etapa Gasteizen amaitzeko.

Domekan jokatuko da Javier Ezenarro txirrindulari proba, Mendaron

Javier Ezenarro txirrindulari memoriala jokatuko dute domekan, Mendaron, eta aurten, Gipuzkoako Txapelketa egongo da jokoan. Lasterketa Mendaron hasi eta Mendaron amaituko da, eta orotara, 81 kilometro egin beharko dituzte partaideek. Osintxuraino egingo dituzte bi buelta lehenik. Ondoren, Debarantz hartuko dute, eta Sasiolatik Kalbario gainera igoko dira, Mutrikura jaisteko. Ondoren, Olatzetik igoko dira berriz Kalbario gainera, eta handik jaitsiko dira Mendarora.

Uztailaren 21ean jokatuko da Azkarateko Igoera

Maalako jaien barruan Azkarateko Igoera antolatu dute uztailaren 21erako. Maalatik Azkarate gainera 5,9 kilometroko distantzia dago, eta aurten ere, korrika zein bizikletaz igotzeko aukera izango dute partaideek. Txirrindulariak 11:00etan irtengo dira Maalatik eta korrikalariak, berriz, 12:00etan. Parte hartzeko 6 euro ordaindu behar dira, Iriondo, Txarriduna, Lanbroa, Sua edo Pilon tabernetan. Sari banaketaren ostean, salda eta txorizoa banatuko dituzte antolatzaileek, eta kontsumizio tiketak zozketatuko dituzte.

Uztailaren 21ean jokatuko da Sigmako pilota txapelketako finala

Santiago egunez jokatu ohi da Sigmako pilota txapelketako finala, baina aurten uztailaren 21ean jokatuko dute, uztailaren 25a ez delako jai eguna.

220 lagunek hartu dute parte Debabarrenako BTT irteeran

Parte-hartzaileek bi ibilbide izan zituzten aukeran

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta Debegesa Garapen Agentziak antolatuta, BTT martxa egin zuten domekan laugarren urtez. Eguraldi txarra dela eta, aurreko urteetan baino parte-hartze txikiagoa izan zen, baina hala eta guztiz ere, Euskal Herriko txoko guztietatik etorritako 220 lagun elkartu ziren, baita Alcalá de Henares (Madril) eta Burgosetik etorritakoak ere. Euria eta lokatza protagonista izan baziren ere, antolatzaileek esandakoaren arabera, lagunarteko giro atseginean igaro zuten eguna.

Parte-hartzaileek bi ibilbide izan zituzten aukeran: bata laburra, 25 kilometrokoa, eta, bestea luzea, 45 kilometrokoa. Bestalde, parte-hartzaileak laguntzera joandako lagunaren itxaronaldia arintzeko, aurten lehendabiziko aldiz, antolatzaileek spinning saioa antolatu zuten Mintxetako Kirolgunean, eta dozena bat lagunek hartu zuten parte.

Behin proba amaituta, sari ugari zozketatu zituzten partaideen artean, eta 30 sari inguru banatu zituzten.

Argazkiak ikusteko: www.elgoibarren.net

BTT zentruaren harrera

Kirol Patronatuak emandako datuen arabera, mila erabiltzaile baino gehiagoren bisita izaten du Mintxetako BTT zentroak urtero. Bizikletaz egiteko hamalau ibilbide eskaintzen ditu Elgoibar-ko gunek, eta horiei buruzko informazioa eskatzeaz gain, bes-



telako zerbitzuak ere erabiltzen dituzte bisitariak: dutxak, bizikletak garbitzeko gunea, igerilekuak...

Bisitarien jatorriari dagokionean gehienak Euskal Herriatik, Madrildik, Kataluniatik, eta Errioxatik iristen dira, baina Frantziatik ere gero eta bisitari gehiago hurbiltzen direla jakinarazi dute arduradunek, eta gehienak uztailetik urrira bitartean etortzen direla. Era berean, BTT zentruaren webguneak 60.000 bisitari baino gehiago izan ditu azken urtean, iaz baino %30 gehiago, hain zuzen ere.

Iñigo Lazkano mendarorak hirugarren egin du Garaiko triatloian

Garaiko II. Triatloia jokatu zuten domekan, eta Iñigo Lazkano mendarorak hirugarren egin zuen, 4:41:43 denborarekin. Josu Uriarte markinarrak irabazi zuen proba, eta Gorka Bizkarra mañariarra sailkatu zen bigarren. Ibon Gabilondo elgoibartarra laugarren lekuan sartu zen 4:46:35 denborarekin, eta Ibon Serranok 29. postuan amaitu zuen proba, 5:37:39 denborarekin.

Ibon Gabilondok, bestalde, distantzia luzeko munduko triatloi txapelketa jokatu du uztailearen 29an, Gasteizen.



Iñigo Lazkano, eskuman.

Futbol 7 txapelketako final laurdenak bihar, Mintxetan

Debabarreneko Futbol 7 txapelketa final laurdenetan da. Bihar jokatuko dituzte partidak Mintxetan, 9:00etatik aurrera. Aipatzekoa da final laurdenetara iritsi diren zortzi taldeetatik sei Elgoibarkoak direla.

Xake txapelketa bihar, Lerun jatean

Euskal zirkuitoko xake txapelketa jokatu dute bihar, Lerun jatean. Bost minutuko partida azkarak jokatu dituzte, denek denek kontra. Hauek dira parte hartuko duten taldeak: Urnieta, Castro Urdiales, Elgoibar, Salcedo, Azkoitia, Eibar, Arrasate, Elorrio, Ermua, Bergara, Abadiño, Durango eta Zornotza. 16:30ean hasiko da txapelketa.

LANA

ESKAERA

• Emakumea lanerako prest. Sukaldari laguntzaile gisa, platerak garbitzen edota bestelako edozein garbiketa lan egingo nuke. Asteburuetan ere bai.

☎ 699 609 190

• Esperientziadun emakumea nagusiak zaintzeko prest. Garbiketak edo zerbitzari lanak ere egingo nituzke. Gidabaimena eta autoa ditut.

☎ 662 589 611 / 943 250 296

• Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-
duak zaintzeko, nahiz garbiketa lanak egiteko.

☎ 626 246 543

• Emakume bat eskaintzen da adinekoak edo ezin-
duak zaintzeko, nahiz garbiketa lanak egiteko.

☎ 669 311 385

• Gizona edozein lan egiteko prest.

☎ 636 029 526

• Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko
prest.

☎ 616 260 793

• Bikote atzeritarrak lanerako prest. Nagusiak zaintze-
ko, margoketa lanak egiteko, garbitzeko, baserriko la-
netarako, jostun lanak egiteko... Edozein lan. Esperien-
tzia eta erreferentziak ditugu.

☎ 629 144 188

• Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko eta
garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat.

☎ 663 657 870

• Emakumeak umeak edo nagusiak zaintzeko eta gar-
biketa lanak egiteko prest.

☎ 648 603 029

• DBH2ra arteko klase partikularrak ematen ditut. Uz-
taillean, goizez.

☎ 688 664 727

• Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaindu, garbi-
tzaila edo zerbitzari lanak egingo nituzke. Orduka edo
interna. Erreferentziak ditut.

☎ 659 101 631

• Emakume gaztea lanerako prest. Umeak zaindu, zer-
bitzari edo garbitzaile lanak egingo nituzke.

☎ 652 779 800 / 628 238 955

• Gizona lanerako prest.

☎ 685 212 060

• Alemanierako klase partikularrak ematen ditut. Adin
guztietako pertsonentzako. Metodo atsegina.

☎ 670 793 312

• Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna umeak zaintze-
ko prest.

☎ 674 862 116

ETXEBIZITZAK

• Pisia alogagai San Frantzisko kalean. Logela bat.
Berritua.

☎ 660 609 658

• Pisia salgai Elgoibarren. 3 logela, egongela, komuna,
sukaldea eta ganbara. Guztiz berritua, bizitzera sartze-
ko prest.

☎ 688 658 813

BESTELAKOAK

• Bigarren eskuko karro-denda salgai. Bi logela: bata,
1,35 metrokoa, eta bestea, 1,20 metrokoa. Erdian jan-
gela txiki bat du. Abanxe itxia eta toldoa. Atzean, arko
handi bat. Egoera onean. 350 euro.

☎ 689 781 069

• Estimatu handitan ditudan belarritakoak galdu ditut,
King-Kong eta Maala bitartean.

☎ 943 740 956

• Txankakuako autobus geltokian dagoen lorontzi ba-
tean Unibertsitateko apunte batzuk aurkitu ditut. Zubi
Ondo elkartean utzi ditut.

LOKALAK ETA GARAJEAK

• Pabilioia alokairuan Ibaicitartean. Egokituta eta be-
teta, garabia barne. 400m2. A7 pabilioia.

☎ 659 574 197

• Garaje marraduna alokairuan, Lekuederren.

☎ 943 741 715

KINTOAK


• 1957an jaiotako mendarorek kinto bazkaria
egingo dute uztailearen 14an, Landa jatetxean.
13:00etan elkartuko dira Txirristakan. Interesatuak
ondorengo telefonoetan eman dezakete izena:

☎ 685 720 529 (Juanjo) / 943 031 754 (Izaskun)


Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



*HERRIRA herri mugimenduak bazkari herrikoa antolatuko du abuztuaren 23rako.
 13:00etan txopinazoa plazan. Ondoren triki poteoa.
 15:00etan bazkari herrikoa Maalako parkean.
 Abeslariak egongo dira giroa alaitzeko.
 Tiketak salgai, uztailek 15etik aurrera, Jai Alai, Iturri eta Lambroa tabernetan.
 Animatu, eta parte hartu!!!!*





• Zorionak, **Nagore**. Ilgandean 2 urte! Muxu bat familiakoen eta bereziki Lorea, Ane eta Malenen partez.



• Zorionak, **Irune**, atzo 4 urte bete zenituelako. Familia guztiaren partez, eta bereziki gurasoen partez.



• Zorionak zure hamargarren urtebetetean. Orain arte bezain jator jarrai deza zuela. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Jon**. Uztailaren 7an 3 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Maddi**, asteazkenean 4 urtetxo egin zenituelako! Patxo handi bat etxekoen, eta bereziki, Aneren partez.




• Egun ederra pasatu genuen zuen ezkontzan. Segi horrela, poz-pezik. Charo, Elias, Patxi eta Rosaren partez.



• Zorionak **Nahiri**, gure etxeko neska handiari. Muxuak amama eta izekoren partez.



• Zorionak, **Unai eta Junel** Ekainaren 29an eta uztailaren 21ean, 3 eta 4 urte! Muxu potolo bat familiakoen partez.



• Zorionak, **bikotel** Zoriontsu izan zuen ezkontza egunean eta hemendik aurrerakoan! Muxu bana koadrilakoen eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Victor eta Maytel** Uztailaren 2an 18 urte beteko dira ezkondu zinatenetik. Zuen seme Jose Miguelen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Naiara**, zure laugarren urtebetetean. Muxu asko, gurasoen partez.



• Hamarreko bi! Zorionak eta jarraitu horrela, burubelarri!



• Zorionak, **Oier eta Iratxi** Laster zuen bigarren eta seigarren urtebetetzeak ospatuko ditugu. Muxuak, aita eta amatxoren partez. Pila-pila maite zaituztegu.



• Zorionak, **Jon eta Julen**, gaur urtebete betetzen duzuelako. Muxu asko, amatxo, aita eta Titaren partez.



• Etxeko printzesak 4 urte handi bete ditu dagoeneko! Muxu potolo bat, aita eta amatxo, Lua eta bereziki lbonen partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean iritsi da zuen eguna! Oso ondo pasa, familiakoen eta, bereziki, Janireren partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU.
 Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.


ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
 Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira
 BARRENEKO bulegora, 12:00ak baino lehen,
 edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Uztailak 11n,
MINTXETARA IRTEERA.
 Izenematea ludotekan,
 943 748 883ra deituz edo
 656 740 793ra sms bat bidaliz.

KOADRILEN ARTEKO OLINPIAR JOKOAK
 antolatu ditu gaztelekuak,
 uztailaren 17tik 21era.
 Izena emateko azken eguna:
 uztailak 8



7 zapatua

Topaketa

10:00 Tuning topaketa

Zubibaik antolatuta, Altzolako Karmen enparantzan.

Xakea

16:00 Euskal zirkuitoko txapelketa

Zubi Ondo elkarteak antolatuta, Lerun jatetxean.

9 astelehena

San Fermin

10:30 San Fermin txiki

Atxutxiamaikak antolatuta, Errosario eta San Bartolome kaleetan.

9:30 Spinning saioa

Mintxetan.

13 barixakua

Kirola

22:00 Ehun milak ultratrail lasterketari ongi-
etorria

Azkaraten.

OKINDEGIA

8 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

- 6 Ibañez
- 7 Garitaonandia
- 8 Garitaonandia
- 9 Etxeberria
- 10 Barrenetxea
- 11 Yudego
- 12 Zabaleta

Gaez

22:00 - 9:00

- Garitaonandia
- Garitaonandia
- Garitaonandia
- Etxeberria
- Barrenetxea
- Yudego
- Barrenetxea

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

AIRE LIBREKO ZINEA
(KALEGOEN PLAZAN)



«El intocable»
6, barixakua: 22:30



«La guerra de los botones»
7, zapatua: 22:30

I. URTEURRENA

LUCIA HERRERO LOBO



*Urtebete pasa da
Lucia zu gabe
behabada ez gara
izan horren jabe
gurekin dugulako
inoiz ahaztu gabe
zure irribarrea
guk itzali gabe*

Lagunak





Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixillon 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Koleorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04





Elgoibarko MEKA GLHBI
eta Elgoibarko Arreiturre BHI



Mekako eta Arreiturreko
Guraso Elkarteak



Elgoibarko Herri Eskola



Kalamua Guraso Elkarteak



MILA ESKER.
*Zuek emandako diru-laguntza
Elgoibar euskalduntzen erabiliko dugu.*